

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bidaia-agentzia enpresak zenbait aukera eskaintzen ditu, gure bezeroen nahien arabera egokituta. Bezeroek bidaia erreserbatzerakoan, galdetegi bat egingo dute, non haien lehentasunak eta nahiak adieraziko dituzte. Gure enpresarekin bidaiatzeko erabakitzen duten bezero mota gehienak honako hauek dira: **sukaldaritzafizionatuak, luxuzko turistak, familiak, behar berezietako bezeroak, enpresen kudeatzaileak eta sare sozialetatik eratorritako taldeak.**

Sukaldaritzafizionatuak janariaz, elikagaietaz eta sukaldaritzaz arduratzen diren bezeroak dira. Gastronomia zaleak dira, beraz, mota guztietako janariak jateko aukerak izatea nahi dute gehienetan, hala nola, janari berriak dastatzea, kultura ezberdinetako janariak...

Beste aldetik luxuzko merkatuak gustoko dituzten pertsonentzat lan egingo dugu ere bai. Talde honek gure enpresarentzat hainbat mozkin eragingo ditu, normalean garestiagoak diren bidaiak kontratatzen dituztelako, esperientza eksklusiboak bizitzearen nahian.

Behar berezietako bezeroentzat ere lan egiten dugu, hainbat dieta ezberdinentzako janariak duten jatetxeetara joaten garelako askotan.

Enpresa bidaiak egin behar dituzten langileak gure agentziaren bezero zati handiak dira. Enpresak gure bidaia agentziarekin lan egiten dute, bere langileak gurekin bidaiatzeko aukera izateko. Lan egiten ez dauden bitartean, herriaren jatetxe hoberenetara eramaten ditugu.

Gainera, influencer ezberdinak gurekin bidaiatzea ere erabakitzen dute, askotan gero gure agentziari publizitatea egiteko, eta gure agentzia bezero gehiago lortzea eragiten.

SUKALDARITZA-AFIZIONATUAK:

Gure agentziak hainbat bezero espezifikoentzat lan egingo du. Hala nola, **gastronomia-zaleak**, hau da, janari onaz gozatzen duten eta sukaldaritzafizionatuak esperientzia paregabeetan interesa duten pertsonak. Janari osasungarriko aukerak, ongizate-erretiroak, abentura-esperientziak (tour ezberdinak, esperientzia gastronomikoak naturan etab.) eta bizimodu osasungarri bat bilatzen dituzten bezeroentzat, gure agentzia aukerarik hoberena da.

Gastronomiaren bidez, bezeroek bisitatzen ari diren herrialdearen **kulturetan murgildu nahi** diren bezeroetarako ere lan egiten dugu. Hau da, janariaren historian eta tokiko sukaldaritzatradizioetan interesak duten bidaiariak.

Sukaldaritzafizionatuak diren bezeroak haien sukaldaritzatrebetasuna hobetzeko nahian esperientzia praktikoak eta sukaldari profesionalekin tailerrak bilatzen dituzte. Eta gure enpresak honen inguruko jarduera asko ditu.

Postreak eta gozokiak asko gustazen zaizkien pertsonen gure agentzian gonbidatuta daude, hau da, gozoetan eta postreetan interes berezia duten bezeroak, tokiko gozokietan oinarritutako esperientzian bilatzen dutenak.

Ardoaren eta garagardoaren kulturetan interesa duten bezeroetarako ere lan egiten dugu. Ardo-dastatzeetan, upeltegietan edo artisau-garagardotegietako turretan interesa dutenak.

Bidaia mota honetan interesatutak dauden bezeroek, gehienetan, Alemaniara (Oktober Fest) edo Frantziara joaten dira.

LUXA GUSTOKO DUTEN TURISTAK:

Luxuzko bidaiak ere baditugu, non bezeroek esperientzia eksklusiboak bizi ahal dituzte. Adibidez Michelin izarrak dituzten jatetxeetan jatea edo esperientzia pribatua sukaldari ospetsuekin izan ahal dituzte, horrela **luxuzko turistak** nahiak bete ditzakegu.

BEHAR BEREZIETAKO BEZEROAK:

Murritzeta dietetikoak dituzten pertsonentzat ere lan egiten dugu, adibidez, glutenik gabeko, laktosarik gabeko edo bestelako elikadura-premia bereziak dituzten bezeroentzat.

Begetarianoak, beganoak edota haien kulturengatik dieta berezi batzuk behar dituzten pertsonak ere gure bezeroak dira. Haien dietei buruz arduratzen garelako.

ENPRESEN KUDEATZAILEAK:

Ekitaldeetara joan nahi diren **bezero taldeentzat** lan egiten dugu. Adibidez, ekitaldi handietara joateko.

Negozio-bidaiariak gure bezeroen beste zati garrantzitsu bat sortzen dute. Beren lana esperientzia gastronomikoekin konbinatu nahi duten profesionalak baitira. Gainera, negozio-afariak jatetxe garrantzitsuetan antolatzen ditugu.

INFLUENCER-TALDEAK:

Influencer-ak eta janari blogariak ezinbesteko bezeroak dira, beren esperientzia gastronomikoari buruzko sortzen dituzten edukiak gure bidaia-agentziarentzat hainbat ondorio positibo ekarri ahal duelako, esate baterako, publizitate ona. Bezero mota hau, leku atsegingarrietan eta joera gastronomikoetan interesatuak daude gehienetan.

